



## PRENTSARAKO OHARRA

18/11/16

### **Bizkaiko umeek bardintasuna eta gazteen artean kontzientzia indartzea errebindikau dabe, genero indarkeriari aurre egiteko**

- **Hainbat ikastetxetako mila gazte ordeztu dituen 240 ume hartu dabe parte genero indarkeriaren prebentzioaren ganeko osoko monografikoan**
- **Bizkaiko Batzar Nagusiek, UNICEFen Euskadiko Batzordeagaz batera, antolatu daben ekitaldi garrantzitsuak bi egun sinboliko batzen ditu: Umeen Eskubideen Egun Unibersala eta Emakumeen kontrako indarkeria desagertuazoteko Nazinoarteko Eguna**

Gernikako Batzarretxeak, umeen eta nerabeen ikuspegitik genero indarkeriaren prebentzioaren ganeko osoko monografikoa jaso dau gaur, Bizkaiko Batzar Nagusiek antolatuta, UNICEFen Euskadiko Batzordeagaz batera.

Umeen Eskubideen Egun Unibersalaren –zemendiaren 20an– eta Emakumeen kontrako indarkeria desagertuazoteko Nazinoarteko Egunaren –zemendiaren 25ean– bezperatan sinbolismoz beteta egon dan ekitaldira 12 eta 14 urte arteko 240 ume baino gehiago joan dira, Bizkaiko ume guztiak ordeztuz. Hainbatek dekalogo bat irakurri dabe, eta bertan genero indarkeriaren prebentzioa errebindikau dabe, Umeen eta Nerabeen eskubideetan oinarrituta.

Euren eskubideak defendiduten “ahalik eta esfortzu handiena egiteko” eta “erabagiak umeentzat zer dan onena pentsauta hartzeko” eskatu deutsie umeek Batzarretako ordezkariari. “Gizartearen etorkizuna gara, eta gu entzutea, gu babestea, gu maitatzea, gu ulertzea eta gure eskubideak bermatzea gura dogu, baina, persona guztien artean Bizkaia hobea egiteko bidea erakustea be eskatzen deutsuegu”, adierazo dabe.

Lurralde horretan “genero indarkeria ez da izango persona askok, emakumeek batez be, egunero jasan behar daben arazoa”; laburbilduta, “emakumeen kontrako indarkeria baztertzea lortuko dauen benetako bardintasuna izango dauen” Bizkaia.

Aurretik, harmailatik, hainbat ikastetxetako ordezkariak, irakaskuntzako prozesu honetan sortuz joan diran gogoetak adierazo ditue. Indar osoz, Ikasbide ikastetxetik, Jone Atutxa Yarrantuk eta Diego Ayastuy Alvarezek “generoak, hizkuntzak edo erlijinoak” ez daukiela ezelango garrantzirik errebindikau dabe, “danok bardintasun bera eta eskubide berberak daukaguzalako”.

Holan, Betiko Eskolako Leire Larrazabal Zugadik eta Irati Uria Garaik, genero indarkeria “danon arazoa” dala gogoratuazo deutse bertan Bildu diran guztiei; horretarako, Portugaleteko El Carmen ikastetxetik, Lucía Rodríguezek eta Peio Sádabak, beste gauza batzuen artean, kaleko segurtasun neurriak indartzea, ikastetxeetan genero indarkeriaren prebentzioan sakontzen jarraitzea eta “iragarki feminista gehiago egitea” proponidu dabe, “pentsetako modua aldatzeko”. “Badakigu gauza asko ari direla egiten, baina gehiago egin behar dira”, adierazo dabe.

Gaur bukatu da UNICEFen Euskadiko Batzordearen laguntzailea dan Hazianeko prestakuntza taldeek azken hilebeteetan aurrera eroan daben egitasmoetako bat. *Emon ahotsa zure balioei* izenburupean, hainbat begiralek unidade didaktikoak gauzatu ditue Bizkaiko hamar ikastetxe baino gehiagotan, lanean eta ikasleak, zuzenean, genero indarkeriaren ganean kontzientzietan jarraitzeko beharra azpimarratuz.

“Egitasmoak euki dauen harrera onari” eta “ikastetxeetako ikasleek eta irakasleek prozesuan zehar euki daben inplikaziori esker”, dekalogo bat egin ahal izan da. Batzarretako presidentek adierazo dauen moduan, “danon artean Bizkaia hobea amesteko, bardintasan egoeran egongo diran gizonek eta emakumeek osatutako Bizkaia, emakumeen kontrako indarkeria barik”. Gogoetan eta horren ostean etorri dan testuaren prestakuntzan Bizkaiko hainbat ikastetxetako mila ikasle baino gehiagok hartu dabe parte.

Umearen eskubideen ganeko Konbentzinoan jasoten dan moduan, parte hartzeko daukien eskubidea erabili dabe Gernikan, ordezkari politikoakaz konpartidu daben jente aurreko adierazpen baten bitartez, osokoen aretoan egin dan ez ohiko batzarrean.

Osoko hunkigarriaren buru Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentea izan da, eta beragaz batera Isidro Elezgarai Euskadiko Unicefeko presidentea, Mahaiko kideak eta Batzarretako Gizarte Ekintzako Batzordeko talde guztietako ordezkariak egon dira. Foru Aldundia ordeztuz, Isabel Sánchez Robles Gizarte Ekintzako diputatu andrea joan da ekitaldira.

#### ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Umeen Eskubideen Egun Unibersalerako lau egun falta diranean, Batzarretako presidentek Batzarretako talde guztien artean adostutako Adierazpen Instituzionala irakurri dau. Bertan, Bizkaiko Batzar Nagusiek “euren konpromisoa erakusten dabe umeen eta nerabeen eskubideen defentsan eta aintzatespenean”. Beste gauza batzuen artean, Bizkaiko Batzarren eretxiz “ezinbestekoa da erakundeetako maila guztiak eta politikako, gizarteko eta ekonomiako eragile guztiak inpliketea, zaurgarritasun egoera bereziko kolektibo horren bizitzea hobetzeko”.

Ekitaldia agur bategaz eta Gernikako Arbolaren ondoan ateratako argazki bategaz hasi da. Jarlekuetan jarri ostean, 10 umek Haurren Adierazpena irakurri dabe, eta ostean, Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentek gauza bera egin dau Adierazpen Instituzionalagaz. Ekitaldi sinbolikoa, umeek Batzarretxeko Ohorezko Liburuan sinatuz bukatu da.

NOTA DE PRENSA

16/11/18

## **La infancia vizcaína reivindica la igualdad y reforzar la conciencia entre los jóvenes para hacer frente a la violencia de género**

- **Más de 240 niños y niñas, en representación de un millar de jóvenes de distintos centros escolares, han participado en un pleno monográfico sobre la prevención de la violencia de género**
- **Este simbólico acto, organizado por las Juntas Generales de Bizkaia en colaboración con UNICEF Comité País Vasco, aúna dos fechas simbólicas: el Día Universal de los Derechos de la Infancia y el Día Internacional de la Eliminación de la Violencia contra la Mujer**

La Casa de Juntas de Gernika ha acogido hoy un pleno monográfico sobre la violencia de género desde el punto de vista de niños y niñas, organizado por las Juntas Generales de Bizkaia en colaboración con UNICEF Comité País Vasco.

Al acto, cargado de simbolismo en vísperas del Día Universal de los Derechos de la Infancia -20 de noviembre- y del Día Internacional de la Eliminación de la Violencia contra la Mujer -25 de noviembre-, han acudido más de 240 jóvenes de entre 12 y 14 años en representación de todos los niños y niñas de Bizkaia. Varios oradores y oradoras han leído un decálogo en el que han reivindicado la prevención de la violencia de género desde los derechos de la Infancia y la Adolescencia.

Los niños y niñas han pedido a los representantes del legislativo vizcaíno “que se esfuercen al máximo” para defender sus derechos, y “que decidan pensando en lo que es mejor para la infancia”. “Somos el futuro de esta sociedad, y queremos que nos escuchen, nos protejan, nos quieran, nos comprendan y que garanticen nuestros derechos, pero también les pedimos que nos muestren el camino para, entre todas las personas, hacer una Bizkaia mejor”, han declarado.

Un Territorio “donde la violencia de género no sea un problema por el que muchas personas, especialmente las mujeres, tengan que sufrir día a día”; una Bizkaia, en resumen, “con una efectiva igualdad que logre desterrar la violencia contra las mujeres”.

Previamente, desde la tribuna representantes de los diferentes centros de enseñanza han expresado las diferentes reflexiones que han ido surgiendo a lo largo de este proceso didáctico. Con rotundidad, desde el colegio Ikasbide, Jone Atutxa Yarritu y Diego Ayastuy Alvarez han reivindicado que “da igual el género, el idioma o la religión” ya que “todos y todas tenemos la misma igualdad y los mismos derechos”.

En este sentido, Leire Larrazabal Zugadi e Irati Uria Garai de Betiko Eskola han recordado a los presentes, que la violencia de género se trata de “un problema de todos y todas”; para ello, desde El Carmen de Portugaleta, Lucía Rodríguez y Peio Sádaba,

proponen entre otras cosas, reforzar las medidas de seguridad en la calle, seguir ahondando en la prevención de la violencia de género en los centros y “que haya más anuncios feministas, para que cambie el modo de pensar”. “Sabemos que se están haciendo muchas cosas, pero hay que hacer más”, han declarado.

Hoy culmina uno de los proyectos desarrollados por los equipos de formación de Hazian, colaborador de UNICEF - Comité País Vasco, durante los últimos meses. Bajo el nombre, *Dale voz a tus valores*, varios monitores han desarrollado en más de una decena de colegios de Bizkaia, unidades didácticas que inciden en la necesidad de continuar trabajando y concienciando al alumnado de forma directa sobre la violencia de género.

La “buena acogida del proyecto” y la “implicación del alumnado y del cuerpo docente de los centros educativos a lo largo del proceso” han permitido elaborar un decálogo, como ha apuntado la presidenta de Juntas, “para soñar entre todos y todas una Bizkaia mejor, una Bizkaia de hombres y mujeres en igualdad, libre de la violencia contra las mujeres”. En la reflexión y posterior consenso del texto han participado más de un millar de alumnos y alumnas de distintos centros de enseñanza vizcaínos.

Como se recoge en la Convención sobre los derechos del niño/a, han hecho uso en Gernika de su derecho a la participación a través de una declaración pública que han compartido con los representantes políticos en una junta extraordinaria celebrada en el salón de plenos.

El emotivo pleno ha sido presidido por la presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, quien ha estado acompañada por el presidente de UNICEF Comité País Vasco, Isidro Elezgarai, miembros de la Mesa y representantes de todos los grupos junteros de la Comisión de Acción Social de la Cámara vizcaína. Asimismo, ha acudido al acto en representación del Gobierno foral la diputada de Acción Social, Isabel Sánchez Robles.

El presidente de UNICEF Comité País Vasco ha admitido sentirse “muy emocionado” al dirigirse a los más de 240 alumnos y alumnas que hoy ocupaban los escaños: “Sois nuestro presente y nuestro futuro”. Elezgarai también ha puesto en valor el decálogo: “El paso que hemos dado hoy aquí va a ser referencial para muchos niños y niñas”.

## DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

A cuatro días de celebrarse el Día Universal de los Derechos de la Infancia y, la presidenta de la Cámara ha aprovechado el momento para leer una Declaración Institucional, consensuada con todos los grupos junteros, en la cual las Juntas Generales de Bizkaia “se comprometen en la defensa y reconocimiento de los derechos de la infancia y adolescencia”. Entre otras cosas, el parlamento vizcaíno cree “imprescindible involucrar a todos los niveles institucionales y agentes políticos, sociales y económicos para mejorar la vida de este colectivo especialmente vulnerable.”

El acto ha comenzado con un “agurra” y una foto de grupo junto al Árbol de Gernika. Tras tomar asiento en el hemiciclo, 10 menores han hecho lectura de la Declaración infantil y, posteriormente, la presidenta de Juntas Generales, Ana Otadui, ha hecho lo propio con la Declaración Institucional. El simbólico acto ha concluido con la firma de los menores en el Libro de Honor de la Casa de Juntas.